

*Jose Joakin Raymond*  
*Bergara, Gipuzkoa (1862)*

Aurkibidea

## Biografia

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Latorrigilea zen eta 51 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: bizkaiera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.223 eta 2.224

## Zintak

### BER-331

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-07-23
- **Iraupena:** 4 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** OAW

# Pasarteak

## 1. Etxeko sutea

- **Erref:** BER-331/001
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:00

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

### Laburpena:

<p>Gau batean etxea erre zitzaionekoa kontaktzen du. Sua emendatzeko (itzaltzeko) ahaleginak egin arren, suak bere bidea hartu zuen.</p>

#### Transkripzioa

Juan dan domeka gau baten artu kafia bi kopakin eta sigarro purua erre eta juan nitzan etxera lo eittera eta gabian, gabian sua isan san eta, eta serenua ate joka, eta gero pasau san atia jo, ta jaiki nitzen segittuan, joan ginan bonbia artuta su emendatzera eta gu joan orduko dana erria zeuan, ta batuk bonbia or ipini, bestiak or ipini, an ipini, denboria jun, eta suak bere lanak eñ, eta ortan, ordu bata terdiak ordu bixek aldian akabatu sian ango lanak.

## 2. Ura kobratzerakoan

- **Erref:** BER-331/002
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:01:45

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

### Laburpena:

<p>Jose Joakin Bergarako uren arduraduna zen. Etxe batera uraren zergak kobratzera joandakoan bizitakoak.</p>

#### Transkripzioa

Eta au politta. Lengo egun baten juan nais uran dirua kobratzera etxe batera eta lau txakur aundi geixaun esesua, eta ser da ori eta ser da ori, eta nik esaten notzan orrek lau txakur aundi orrek diala kuartillu bat neuk erateko. Asi jatan berris kopletan eta gero nik askenian estaola koplak:  
- Aquí a pagar tocan, señores y compañía.

## 3. "Muxuangule"

- **Erref:** BER-331/003
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:01:45. **Bukatu:** 00:02:29

### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

<p>Gau batean etxeko atarian zegoela gizon batekin izandako elkarrizketa. Ez zekien zein zen beste gizon hura, "muxuangule" noiz egingo zuten galdetu zion arte.</p>

**Transkripzioa**

- Juan dan gau baten atien freskure artzen nagola etorri jatan iru mutil, bat ni saludatzera, eta ni bat orrekin esin nitzan akordau sein san, eta berak:  
- Que hay, Jose Joaquin? Enasu esautzen?  
- Ba, enais akordatzen.  
- Ta nois eingo dou muxuangule? Urrengo karnabaletan ni etorriko nais eta ein biardeu, einbiou muxuangule.  
- Bien, eta orduan akordau nitzen sein san eta, sein sala uste dosue?  
Señorito José M. Lardizabal.

**4. San Marzial eguna**

- **Erref:** BER-331/004
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:02:29. **Bukatu:** 00:03:30

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

**Laburpena:**

<p>San Marzial eguna ospatzeko planen berri ematen du: askaria jan, Blasenean kafea hartu, abestu...</p>

**Transkripzioa**

Aittuik Joxe Trapala: gaur San Marzial eguna dok eta meriendau ederki eta gero Blasenian kafia artu eta kantau ein biajuau Usutxuria eta olako kanta batzuek eta kostia kosta gaur umoria pasau eta bigar ur freskua eran eta lana eiñ.  
Jakin nai bosue ni sein naisen, soy Jose Joakin Raimond, Bergarako uren enkargaua.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-06-07*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkarte  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com